

# **Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra?**

**M. Teresa Cabré**  
**IULA. Universitat Pompeu Fabra**  
**Euskaratzailea: Axun Aierbe Mendizabal (EHU/UPV)**

Lan honetan terminologiaren xedea eta lan-alorra ikertu beharrean, terminologiaren mugei buruzko gogoeta egin nahi dugu. Horretarako hiru punturen gaineko zeharkako gogoeta egingo dugu: terminologiaren zedarriak eta definizioa, diziplina gisara nahiz praktika moduan azterturik; metodologia batzearen gaineko eztabaida; eta terminologiaren alorrean ikerketaren eta erabakien ardurak antolatzeari buruzko alderdiak.

In this article we reflect on the limits of terminology as a discipline concentrating on three aspects: the definition and basis of terminology from both a theoretical and a practical point of view, the discussion about methodological unification in this area, and the distribution of responsibilities for both research and decision-making processes.

## 1. Sarrera\*

Artikulu hau terminologiaren zedarriei buruzko gogoeta da, xedearen edo lan-alorraren gaineko ikerketa baino areago. Artikuluaren xede nagusia gai hauei buruzkoa da:

1. “Terminologia” nozioaz egun dagoen aniztasuna.
2. Zientzien eta tekniken artean duen lekuaz.
3. Terminologia mugatu beharraz, hobeto definitu ahal izateko terminografiako lan-metodoa(k) eta ikerlanaren beraren antolaketa.

Gai hau ez da guretzat hutsala, alderantziz baizik, izan ere gogoetagai izan dugu etengabe 1986az geroztik, hain zuzen, Kataluniako Terminologia Zentroaren zuzendaritza hartu genuenetik. Uste dugu ohartu garela ikerlanaren antolakuntzan —nagusiki Quebec-eko antolamenduan oinarritua— bazela zerbait zailtasunak zekartzana. Horrek eraman gaitu lan-prozesuko eta egitekoen antolamenduko zenbait elementu berriro aztertzerara. Terminologiaren Normalizaziorako Batzordean (Terminologia Ikuskatzeko Kontseiluan) izan dugun esperientziak gai honi buruzko iritzia sistematizatzen lagundu digu. Azkenik, ikusmolde ezberdinetatik abiatu eginiko argitalpenak irakurri izanak eraman gaitu ikuspegi anitz izatera orain aztertuko ditugun gertakarien gainean.

## 2. Normalizazio tekniko eta zientifikoa

Gaur egun ez dago inor, terminologiako adituen artean behintzat, ahantz dezakeenik “normalizazio” kontzeptua mendearen lehen laurdeneko teknikariek eta zientzialariek sortu zutela:

La nécessité de la normalisation terminologique est d’abord apparue dans les années 1930-1940 parmi les spécialistes, qu’ils soient des individus (Ernest Dresen en URSS, E. Wüster en Autriche) ou des groupes (Commission Electrotechnique Internationale, Commission de la réforme de la nomenclature de la chimie organique). C’est à eux que revient la définition du concept de normalisation terminologique et des mécanismes consultatifs de sa mise en application. De cette réflexion est né le Comité de normalisation de l’ISA d’où sortira plusieurs années plus tard le Comité technique 37 d’ISO (Auger, 1980).

Espezialitate-alorretako terminologiaren normalizazioa adituek beren alorreko produktu eta kontzeptu berriak izendatzeko duten beharretik sortua da, hain zuzen ere, zientziaren eta teknikaren garapen azkarraren ondorio, eta bai eta alor horietan adiera bakarreko komunikazioa ezarri beharretik sortua ere:

The rapid increase in knowledge and in the production of technical goods made it necessary for scholars, scientists, engineers and craftsmen to deal with language,

---

\* Itzulpen-lan hau 2001ean Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusak deituriko Felix Ugarte IX. Itzulpen-lehiaketan saritua izan zen. Eskerrak bihurtu nahi nizkioke epaimahaiari, saria dela bide itzulpena argitara emateko atea zabaldu zaidalako. Jatorrizko lanaren erreferentzia ondoko hau da: “Terminologie ou terminologies? Spécialité linguistique ou domaine interdisciplinaire?”, *Meta* (1991) 36-1, 55-63. Gero liburuan: *La terminología: representación y comunicación. Elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos*, IULA-Pompeu Fabra, Bartzelona (1999), 55-66.

i.e. to name and define newly created objects and new scientific phenomena. Systems of terms were developed in biology by Linné in 1735 and in 1782 by Morveau for chemistry. (...) In the 19<sup>th</sup> century, international cooperation in science necessitated the development of unified rules for the formation of terms. This started at the international congresses of botanist in 1867, of zoologist in 1889 and of chemists in 1892. (...) In the 20<sup>th</sup> century the rapide growth of technology made it necessary for engineers to direct their attention to linguistic problems in technology. The most eminent researchers are: Wüster (1898-1977) in Austria (...) and Lotte (1889-1950) in the Soviet Union (Felber, 1985).

Normalizazioaren xedea, horrela ulertuta, adituen artean batak besteari jakintzaren berri ematea da. Hortaz, terminologia diziplina gisara eta praktika gisara ulertua da:

- a) *Alor bereko adituen arteko lotura* egiteko balio behar du, hizkuntza berean hitz egin edo ez.
- b) *Nagusiki adituen lanean oinarritua izan behar du*, haiek baitira beharra dutenak.
- c) *Jakintzaren berri anbiguotasunik gabe emateko* balio behar du, ama-hizkuntzan aditzera emateko baino areago.

Ondorioz, *normalizatzea*, terminologia horrela ulerturik, elkar hobeto ulertzeko *estandarizatzea* da; hots, komunikazioaren mesedetan hizkuntza pobretzea.

Terminologia, hortaz, adituen afera dugu eta haiei dagokie terminologiaren ikerketa egitea (edo kudeatzea) eta ados jarriz izendapen estandarizatuak erabakitzea.

Haien ikerketaren alorrak diziplina zientifiko-teknikoetakoak dira.

### 3. Terminologia, hizkuntza-normalizaziorako tresna

Bigarren mundu-gerraren ondoren izaniko aldaketa soziopolitikoaren ekarria dira, itxuraz, ondorio kontraesankorrak dituzten bi gertakari:

1. Nazioarteko erakundeak, enpresak eta merkatuak (hortaz, eleanitzak) agertzea. Horrek dakar zenbait hizkuntza aldi berean baliatu eta terminologia-baliokidetasunak ziurtatu beharra;
2. Identifikaziozko nazionalismoen boterea eta, ondorioz, norbere hizkuntzan izendatzeko bideak, kanpoan sorturiko errealitate berrientzako baliagarri izango direnak, aurkitu beharra.

Gobernuek hizkuntza-afereetan eskuhartzeak, administrazio-lurralde jakin baten barnean hizkuntza baten edo gehiagoren estatusa babesteko hizkuntza-politikako plangintzak landu beharra eskatzen du. Horrela bada, babes-plangintzak agertu dira eta ez soilik gatazkan dauden gutxiengoaren hizkuntzak edo beren lurraldean gutxiagoturik daudenak babesteko, bai eta historian zehar hizkuntza boteretsuak izan direnak eta beren administrazio-lurraldean egoera gatazkatsuan ez daudenak babesteko ere, egun ingelesaren botere monopolizatzaileak mehatxaturik daudelako.

Terminologia barne hartuta dago esku-hartze ofizialeko hizkuntza-politiketako egitasmoetan, izan ere, edozein hizkuntza indartu egiten da berritasunetara egokitzeko gai bada. Horrexegatik, hizkuntzak egoera gatazkatsuan dituzten hainbat herrialdek terminologia-zentroak eratu dituzte erakunde ofizialen mende, dagozkien esparruetan terminologia-lanak gauzatu ahal izateko, neologia arautzeko eta termino berriak ezarriko direla bermatzeko.

Jarduera soziopolitiko horren barnean, terminologia hizkuntzaren bizitasunaren adierazpide anitzetariko bat genuke. Terminologia-lanen xede nagusia ez da adituen artean bata besteari jakintzaren berri emateko unibokotasuna bermatzea; hori baino areago, bitartekotzarik gabe, modernotasunaren desafioari erantzuteko hizkuntzaren gaitasuna adieraztea da.

Terminologiaren gaineko ikusmoldea, hortaz, diziplina gisara nahiz praktika gisara, aldatu egin da hitza ulertzeko moduari dagokionez, adituek esku hartzen baitute. Hurbilketa honen arabera, beraz, terminologiak:

- a) hizkuntza bereko adituen arteko harremana bideratzeko balio behar du,
- b) hiztuna hartu behar du ardatz gisara eta, hortaz, nagusiki hizkuntzari dagokion aferatzat hartua behar du izan, afera zientifikotzat edo teknikotzat baino areago, eta
- c) hizkuntza jakin baten bizitasunaren eta modernotasunaren lekuko izan behar du, eta jakintzaren berri emateko balio behar du.

Nabarmendu nahi dugu *normalizazioaz* ulertzen duguna aldatu egin dela arestian aurkeztu dugunarekiko. Normalizatzek oraingoan adierazi nahi du ohiko hizkuntzak alor espezializatuak bereganatzea.

Terminologia hizkuntza-aferatzat hartua bada, hizkuntzalariei dagokie ikerketa kudeatzea. Hurbilketa horretan, ikergaiak ugaritu egin dira eta, hortaz, jadanik hiztun guztiengan dute eragina eta ez soilik adituengan. Alabaina, zaila da, espezialitate-alorrek deitu ditugunak zedarritzea:

Special languages or more precisely subject languages, are usually thought of as the means of expression of highly qualified subject specialists like engineers, physicians, lawyers, etc. and are often derogatively referred to as «jargon». The fact that humbler occupations like nursing, book-keeping and cooking and even hobbies also involve special areas of human interest and therefore also require and indeed have their own special language is much less often acknowledged. Since practically every human activity can be attributed to one subject or another, all language could be split into so many subject languages and the word «special» would be superfluous (Sager, 1980).

Hizkuntza-politika jakin batek araturiko hizkuntza-normalizazioko edozein prozesuk hizkuntza erabiltzen den komunikazio-alor guztiak bete behar baditu, terminologia ikertzeko plangintzak, berriz, terminologiak garrantzia duen komunikazio-alor horiek guztiak hartu behar ditu, hain zuzen, alor berezitu guztiak, ahalik eta adierarik zabalenean. Ildo horretatik, terminologiak honako hauek hartu behar ditu:

- a) lexiko arrunta,
- b) lehen mailako lexiko berezituak edo atal arruntetako hitzak (*lexiko giltzarriak* edo arrunt bihurtuak),
- c) lexiko berezituak, adiera hertsian esanda, edo terminologia zientifiko-teknikoak, bi ikuspuntutatik abiatutik:
  - Sortzailearen ikuspegitik
  - Kontsumitzailearen ikuspegitik

Terminologiari buruzko lehenengo ikusmoldean, adituen afera gisara ulertzen dugun horretan, lehen alorra soilik da ikerketaren xede berezia; bigarrenean, ordea, alor guztiak dira aztergai.

#### 4. Terminologia-alorreko nahasmendua

Terminologiaz mintzo garenean, nolabaiteko nahasmendua dugu arrazoi hauengatik:

- a) egin berri ditugun bi hurbilketen arteko bereizketarik ezagatik,
- b) ikerketa-metodologia modu bertsu bakar batean soilik ulertzeagatik,
- c) metodologia hori espezialitate-alor guztietan era homogeenegian aplikatzeagatik,
- d) kontuan hartu beharreko xede ezberdinen artean bereizketarik ez egiteagatik.

Nahasmendu hori hiru mailatan aurki daiteke:

- a) diziplinarenean
- b) metodologiarenean
- c) terminologia-lanaren antolakuntza-alderdietan.

Ondorioz, hobeto jardun ahal izateko, arras beharrezkoa zaigu honako galdera hauek argitzea:

- Terminologiaren lan-eremuaz beraz. Bi terminologia-motaren arteko ezberdintasuna egin behar ote dugu? Hobe ote litzateke hitz ezberdinak erabiltzea bata eta bestea izendatu ahal izateko?
- Ikertzaileez. Terminologia-mota ezberdinak bereizteak ikertu beharreko gaiak baldintza ote ditzake?
- Ikerketaren xedeei buruz. Xedeak ikerketa-mota muga ote dezake?
- Ikerketa sistematikoa egitera garamatzen arrazoiak. Nora eraman behar gaitu?
- Terminologia-alorreko agintariei buruz. Nor har ditzake erabakiak terminologia-alorrean? Zein agente-mota hartu behar da kontuan terminoak estandar bihurtzeko?

Galdera horiek argitu ondoren, eztabaidatu ahal izango dugu honako funtsezko gai hauez:

- a) ikerketa-alorra mugatzeaz,
- b) terminologiaren estatusa zientzien artean eta hizkuntzalaritzari dagokionez,
- c) terminografia-alorreko lanaren prozesuaz,
- d) terminologiaren jatorri zientifikoaz eta trebakuntzaren aniztasunaz,
- e) normalizazio-alorreko “aginte onetsiaz”,
- f) lexikoak eta hiztegiak aurkezteaz,
- g) terminologia berria ezarri eta hedatzeko estrategiez.

## 5. Beharrezkoa den aniztasuna

Gaur egun terminologiaz hitz egiteak ikerkuntzarekiko hurbilketa jakin batean kokatzea dakar eta, hortaz, ikusmolde teoriko eta metodologiko jakin batean. Ezin dugu lan egin terminologia-alorrean, zehaztu gabe abiapuntua ‘x’ dela, xedea ‘y’ eta kausa ‘z’.

Gure iritziz, terminologia-alorreko aniztasuna funtsezko lau elementuri loturik dago: ikerketaren xedeari, ikerketaren *egileei*, erdietsi beharreko xedeei eta normalizazio-arloko eragileei.

### 5.1. Ikerketaren xedea

Espezializazioaren ikuspegitik, hiru lexiko-maila bereizi behar dira:<sup>1</sup>

- a) lexiko orokorra
- b) lexiko berezitua edo lexiko giltzarria
- c) terminologia bera

Lexiko orokorra komunikazio-mota guztietan erabiltzen da, bai eta berezitan ere, termino berezituekin batera agertzen baita.

Espezialitate-hizkera guztietan testu-azterketak adierazten du lexiko arrunta ageri dela ehuneko altuan eta *lexiko giltzarri*-aren eta terminologiaren ehunekoak, berriz, aldakorrak direla. Testuaren abstrakzio-mailari loturik dago termino-kopurua aldakor izatea. Lexiko giltzarria erabili ohi da hedadura handiko testu berezituetan (hedabideetan, irakaskuntzan, produktuen aurkezpenetan eta abarretan), jende guztiarentzat edo gai jakin baten gaineko informazio askorik ez duen jendearentzat egiten direnean.

Aitzitik, terminologia bera adituek beren artean jarduteko erabiltzen duten hiztegi mugatuaren multzoa dugu.

---

1. “Espezializazio” parametroak honako hauek dira: hiztunak duen hitzen ezaguera-maila, eguneroko bizimoduko edo komunikazio espezializatuko egoeretako hitzen erabilera-maila, solaskideak baldintzaturiko erabilera, hizkuntzaren hiztegian agertzea, hedabideetan erabiltzea, etab.

Egin dugun bereizketa onartzen badugu, ondorioztatu ahal da gaiak eta berbaldiaren abstrakzio-mailak baldintzatzen dutela hiztegi arruntaren eta berezituaren kopurua. Horrek esan nahi du alor guztietan dugula hainbat lexiko-maila (espezializazio-maila txikienetik handienera) eta hitzunek batari edo besteari ematen diotela lehentasuna, komunikazioaren izaeraren arabera, hain zuzen, mugatuagoa den edo ez aintzat harturik. Aldi berean, alor jakin batean komunikazioa bideratzen den neurrian, lexiko berezituaren kopurua handitu egiten da.

Biokimikak, robotikak edo ekoizpen mekanikoak beren hiztegi berezitua edo terminologikoa dute, espezializazio-maila ezberdinetan antolatuz, hurrenez hurren. Hirurek dute berariazko lexiko mugatu ugaria eta gai horretan aditu direnek bereziki ezaguna dutena. Biokimikaz, robotikaz edo ekoizpen mekanikoaz mintzo den hitzunik erabiliko du hiztegi berezitu hori, hiztegi arrunteko hitzekin batera edo parafasira joz edo azalpenak txertatuz, solaskidearen espezializazio-mailaren arabera. Komunikazioa gauzatuz doan neurrian emeki-emeki oinarrizko lexikoa murriztu egingo da eta lexiko berezitua gero eta gehiago agertuko da, solaskidea pixkana-pixkana berbaldiaren “espezializaziora” hurbilduz doalako. Berbaldiak aurrera egiteak, beraz, “espezialitate” maila ematen du aditzera.

Beste arlo batzuetan ere, hala nola, kiroletan, astialdiko jardueretan edo okintzan edo modaren esparruan, badira hiztegi mugatuak; baina, kontuan harturik, nagusiki jende guztiarekin komunikatzeko balio duela hiztegi horrek, ez da gorago aipaturiko kasuetan bezain garrantzitsua.

Hortaz, «zer da terminologiatzat hartu behar duguna?» galderari erantzun ahal izateko bereizketa egin behar genuke, nagusiki, hedadura handiko *lexiko berezitu*en eta hainbat alorretako berariazko terminologia zientifiko eta teknikoaren artean. Alor horiek dira ikerketa teorikoaren, ikerketa aplikatuaren, aplikazioaren, ekoizpenaren eta merkaturatzearen eta maila guztietako irakaskuntzaren helburu. Bereizketa hori egiten ez badugu, *terminologia* hitza esanahi gabarik uzteko arriskua dugu.

Since practically every human activity can be attributed to one subject or another, all language could be split into so many subject languages and the word «special» would be superfluous (Sager, 1980).

## 5.2. Terminologiagileak

Ezin ahantz genezake benetako terminologiagileak erabiltzaileak direla. Erabiltzaileak dira zerbait izendatzeko beharra nabari dutenak, termino mailegatuarekin topo egiten dutenak edo zerbait izendatzerakoan hutsunea dakusatenak.

Terminologiaren erabiltzaileak zehazteak, bada, alorra ikertzeko egilerik egokienak hautatzera garamatza.

Puntu honetan, lehenago zehazturiko bi moten arteko bereizketa egin behar dugu: lexiko berezituak eta terminologia zientifiko-teknikoa.

Terminologia zientifiko eta teknikoari dagokionez, zientzialariak eta teknikariak soilik dira alorra ezagutzen dutenak –salbuespenak albuespen– eta, hortaz, berariazko kontzeptuak izendatzeko egokienak.

Espezialitate-arloetako lexikoek ez dute eskatzen gai jakin batean aditua den ikertzailearik –jende gehienari baitzaizkio ezagun–, terminologia zientifiko eta teknikoaren kasuan hain beharrezko den arren. Terminologia ikertzeko trebakuntza metodologiko ona besterik ez da behar, eskuratzen diren emaitzak kalitatezkoak izan daitezzen.

Baina, adituek, espezialista diren neurrian, ez dute prestakuntza egokirik terminologia-alorreko ikerketarako. Hortaz, metodologian trebatu behar dira.

Terminologia-alorreko ikerketak hainbat esparrutan informazioa izatea eta trebatuta egotea eskatzen du:

- a) berariazko eremuaren kokapena eta antolamendua,
- b) alorraren edukia,
- c) terminologiazko oinarritzko kontzeptuak,
- d) lan-prozesua,
- e) lana aurkezteko arauak,
- f) terminologia ezarri eta hedatzeko proposamen berriak transmititu ahal izateko hizkuntza-bitartekoak eta bideak.

Begi-bistan dago a) eta b) puntuak adituentzat soilik direla ezagunak eta haiei dagokiela alorreko deskribapen- eta azterketa-lanak gauzatzea (edo kudeatzea), iturriak ikertzea, lan-corpusa finkatzea, alorraren barneko kontzeptuak egituratzea, termino garrantzitsuak ezagutzea, baliokidetzak eta definizioak frogatzea; laburki esanda, eremuarekin, esanahiekin eta edukiekin zerikusia duten lan guztiak. Haiei dagokie izendapenak proposatzea formazko hutsuneak betetzeko edo adituen ikuspegitik desegokiak diren izendapenak ordezkatzeko.

Orduan, bada, hizkuntzalariak hizkuntzalari den neurrian, ez al du egiteko berezirik ikerketan? Gure iritziz, ez da hain garrantzitsua terminologia zientifiko-teknikoari dagokionez; ez, bederen, zientzialariak edo teknikariak bezain garrantzitsua. Kontu pragmatikoa da eta hauxe da abiaburua: zein aditu-mota da egokiena, duen oinarritzko prestakuntzagatik, ikerketa zuzendu (kudeatu, eta ez nahitaez egin) ahal izateko?

Bistan denez, gure iritziz, terminologia zientifiko-teknikoaren eremuan adituei dagokie ikerketan aitzindari izatea, haiek soilik baitute zilegi hori egitea. Haiek dira eremua ezaguna duten bakarrak eta bai eta alorraren edukia eta terminologia ere, zuzen edo oker erabili. Ondorioz, haiek dira eragilerik egokienak lehen deskribaturiko egitekoak gauzatzeko. Horrexegatik, adituek berariazko prestakuntza behar dute terminologia ikertzeko metodologian, jarduera terminologikoa eta itzulpe-nezkoa ez nahasteko; terminoen ikerketaren eta izendapenak ezartzearen artean argiro bereizteko; eta garbiro zehazteko termino jakin bat kontzeptu- eta forma-



-unitatea dela eta ez segmentu grafiko edo fonikoa. Horrek esan nahi du, adituak ikerketa bideratu nahi badu, terminologo gisara trebatuta egon behar duela.

Baina, praktika terminologikoa ez dago mugatuta izendapenak ikertzeraz, baliokidetzak ezartzera edo definizioak esleitzera; praktikak dakar ikerketaren emaitzak testu berezitu gisara eta formaz egituraturik aurkeztea ere: glosarioak, lexikoak edota hiztegiak. Horrek esan nahi du, ondorioz, lana osatu egin behar dela, bai adituari bai hizkuntzalariari ezezagunak zaizkien berariazko aurkezpenen bidez, berariazko prestakuntza osagarririk ez badute behintzat.

Lanaren barneko egitekoen bigarren multzo hau aditu batek nahiz hizkuntzalari batek gauzatu dezake eta xede izan behar du *terminologia* trebatzerakoan.

Hizkuntzalari bereziki terminologo gisara trebatzen bada terminologia orokorrean, terminologia ikertzeko metodologian eta terminologia alorreko nazioarteko arauetan, jakina, lan horiek egin ditzake anitzetan adituak baino hobeki, izan ere semantikaren, lexikologiaren, lexikografia orokorraren eta abarren oinarritzko hastapenak jadanik ezagunak ditu.

Halaber, hizkuntzalarien egitekoa da hizkuntzaren sistemaren baliabideak ezagutzea eta kontzeptuak izendatzeko dauden hutsuneak betetzeko aukerak eskaintzea. Baina, adituen afera da proposaturiko aukeretakoren baten alde egitea, ezarpenaren mesederako izan dadin. Bistan denez, hori soilik gerta daiteke adituek eremua ezaguna badute, nazioarteko konponbideak ezagunak badituzte eta gizarte jakin bateko hizkuntza- eta terminologia-politikako irizpideekin bat badatoz.

Eman berri ditugun arrazoietatik abiatu, ezin ahanztu genezake terminologia-ikerketa zuzendu edo horretan aitzindari izatearen eta ikerlana egitearen artean dagoen bereizketa.

Gure iritziz, terminologiaren beraren ikerketan aitzindari izatea dagokie terminologia-alorrean oinarritzko trebakuntza duten adituei, horiek soilik kudea baititzakete eremuari eta edukiei dagozkien lanak. Gainera, metodologian eta lanak aurkezten trebatu badaude, inolako zalantzarik gabe, terminologo gisara jardun dezakete, hitzaren adierarik osoenean. Horrelako trebakuntzarik izan ezean, terminologo gisara trebatu hizkuntzalariak izan behar dituzte haien zuzendaritzapean.

Egoera arras ezberdina da lexiko berezituaren ikerketan, izan ere, jende gehienak eremua ezaguna izateak ondorio gisara dakar profesionalen gidaritza ezinbesteko ez izatea, eta hizkuntzalariak izan ahal izatea lanaren benetako eragile (zuzendari eta egile), eta eremu horietako «adituak» hizkuntzalarien informatzaile soil izatea.

Gainera, kontuan hartzen badugu lexiko berezituaren eremuetako ikerketak bereziki hizkuntza-normalizaziorako direla, hizkuntzalariak dira sentiberatasunik handiena dutenak eta hobekien prestaturik daudenak ikerketak egin eta lanak gauzatzeko.

Laburbilduz, ez dugu eztabaidatu nahi terminologiazko ikerketarako talde mistoak eratu beharraz, baina bereizi behar da nork hartu behar duen ikerketaren gidaritza kasu bakoitzean.

### **5.3. Terminologia-ikerketaren zergatikoa eta zertarakoa**

Dagoeneko esan dugun bezala, terminologiaren alorrean ikerketa sistematikoa eragiten duen kausa ez da beti berbera eta ditugun helburuak ere ez dira beti berberak.

Nahasmendurik sor ez dadin bi helbururen arteko bereizketa egin behar da ikerketan: normalizazioa eta deskribapena.

Terminologia-alorrean usuen ageri den xedea espezialitate-eremu jakin bateko terminoak estandarizatzea da, hain zuzen ere, bi helburu zehatz izanik:

- a) diziplina espezializatu jakin bat normalizatzea (gai berria delako edo beste era batera aztertua izan delako, edo kontzeptuen ikuspegitik oso eremu nahasia delako eta eduki-multzoa berregituratu beharra duelako, etab.),
- b) hizkuntzaren erabilera normalizatzea (egoera historikoa, administrazio-aldaketak eta abar direla bide hainbat hutsune dituelako). Zenbait eremu berritzeak izendapen egokiak falta izatea edo hitz mailegatu gehiegi bereganatzea dakar.

Baina, terminologia-ikerketak deskribatzeko ere egin daitezke eta, ez nahitaez behintzat, ezer arautzeko; izan ere, terminologia normalizatzea eremu askotan ezinezkoa da (desagertzeaz dauden eremu profesionalak) edo oso zaila da (hainbat gizarte eta giza diziplinatan ezinezkoa da kontzeptuak bereiztea eta horrek ikuspegi-aniztasuna dakar eta, ondorioz, gaiaren beraren kontzeptu-aniztasuna).

### **5.4. Terminologiaren estandarizazioko agintariak**

Badakigu terminologiagileek, ikerlanak egiten dituztenek, terminologo gisara dihardutenek ezin dutela erabakirik hartu kontzeptu berri edo gatazkatsu jakin bat izendatzeko erabili behar den behin betiko formaz eta bestelako aukerak gaitzesteaz. “Aginteak” soilik egin dezake hori. Baina, zer da “agintea”?

Horrezaz ari garela, bereizi behar da diziplina jakin bat normalizatzeko ikuspegiaren barnean adituek adituentzat eginiko terminologiaren eta hizkuntza-normalizazioko plangintzaren barneko terminologiaren artean.

Lehenengoan, partaideen agintea da soil-soilik estandarizatzeko-lanean diharduena. Adituen artean ados jartzea da normalizazioa bideratzen duena, elkar ulertu nahi baitute anbiguotasunik gabe; hortaz, ados jarri behar dute beren artean forma baliagarri, adiera bakarreko eta estandarren gainean.

Alabaina, egoera ez da hain sinplea bigarren kasuan, izan ere, gizarte bakoitzak, hizkuntza bakoitzak estatus jakin eta zehatza du eta berariazko trataera behar du. Gainera, terminologia hizkuntza-aferatza hartu ohi da neurri batean.

## 6. Ondorio gisara

Hasieran esan dugun bezala, artikulu honen bidez hiru punturen gaineko zeharkako gogoeta egin nahi izan dugu: terminologiaren zedarriak eta definizioa, diziplina gisara nahiz praktika gisara aztertirik; metodologia bateratzearen gaineko eztabaida; eta terminologiaren alorrean ikerketaren eta erabakien ardurak antolatzeari buruzko alderdiak.

Gure aburuz, gaur egun ez da behar bezalako bereizketarik egiten terminologiaren eta espezialitate-lexikoen artean, ez eta hizkuntza normalizatzeko egiten diren lanen eta diziplina zientifiko eta teknikoaren normalizaziora garamatzaten artean ere. Horrek terminologiaren oinarri epistemologikoak eta metodologikoak nahastea dakar. Posible da hizkuntza-egoera gatazkatsua duten lekuetan terminologia hizkuntza-arazotzat hartzea neurri batean. Horrek emaitza onak izan ditzake zientzialariek eta teknikariek normalizazio-prozesuari atxikimendu berezia badiote, baina hori ez da beti gertatzen.

Bigarrenik, bereizi behar da lan-eremuetako terminologiaren normalizazioaren eta diziplina zientifiko eta teknikoetako terminologiaren artean, lehena profesionalek egiten duten terminoen erabilerari baitagokio eta bigarrenak, berriz, diziplinaren kontzeptuak normalizatzea ere esan nahi baitu. Enpresa baten terminologia arautzea eta gai zientifiko-tekniko baten terminologia ezartzea ez da gauza bera.

Hirugarrenik, gure ustez, *terminologia* hitzari buruzko ikusmolde ezberdinak argitu behar dira, terminologia zientifiko-teknikoan hizkuntzalaritzak duen nagusitasuna ahantzi behar da eta ikerketa-prozesua hobetzeko adituek terminologia-lan aktiboa egitea sustatu behar da.

Buruenik, uste dugu hizkuntza-antolamenduaren gaineko erabakiak, terminologia-politika eta egin beharreko lanen banaketa ezin direla berberak izan herrialde guztietan eta ezin direla kopiatu, nahiz eta beste toki batzuetan emaitza onak izan. Hizkuntza jakin baten egoera berezia ongi ezagutzeak soilik bideratu behar ditu antolamendu-erabakiak. Herrialde batetik bestera, egoerak antzekoak izan daitezke, baina inoiz ez dira berberak izango.

### Bibliografia-aihuak

- Auger, P. (1980): "La normalisation terminologique et le rôle du spécialiste", in *Actes du troisième colloque OLF-STQ de terminologie: le rôle du spécialiste dans les travaux de terminologie*, Office de la Langue Française, Quebec, 145-154.
- Corbeil, J.-C. (1990): "Comment orienter l'usage d'une langue", in M.T. Cabré, (koord.), *La lingüística aplicada*, Universitat de Barcelona, Fundació Caixa de Pensions, Bartzelona, 79-85.
- Felber, H. (1984): "Trends in terminology", *Infoterm*, 5-84.
- Galinski, Ch. eta Budin, G. (1989): "El paper de l'especialista en terminologia", [1989ko apirilean Bartzelonan eginiko mintegia].
- Galinski, Ch. eta Nedobity, W. (1986): "Special languages, terminology planning and standardisation", *Infoterm*, 2-86.

- Gaumond, J.-C. (1980): "Le rôle des spécialistes dans les comités interentreprises de terminologie", in *Actes du troisième colloque OLF- -STQ de terminologie: le rôle du spécialiste dans les travaux de terminologie*, Office de la Langue Française, Quebec, 23-28.
- Rousseau, L.-J. (1980): "Le rôle du spécialiste dans les travaux terminologiques systématiques", in *Actes du troisième colloque OLF-STQ de terminologie: le rôle du spécialiste dans les travaux de terminologie*, Office de la Langue Française, Quebec, 73-80.
- Sager, J.-C., Dungworth, D. eta McDonald, P. (1980): *English Special Languages. Principles and practice in science and technology*, Brandstetter, Wiesbaden.